

Inbertsoreen eskura dauden **tresnak dibertsifikatzeko** aukera ematen du

Kutxabankek 500 milioi euro ezarri ditu senior zorreko jaulkipen batean

- **Bonuaren prezioa oinarrizko 110 mid-swap puntutan kokatu da, 5 urteko amortizazio epearekin**
- **Taldearen arrisku-profil, kaudimen eta finantza-ahalmen onek nazioarteko inbertsoreak erakarri ditu, eta eskaera handia izan du jaulkipenak**

2023ko urtarrilaren 23an. Kutxabankek arrakasta izan du lehentasunezko senior zorraren jaulkipenean, **500 milioi** euro ezarri baititu **5 urteko** amortizazio-epearekin, eta laugarrena baino lehen ezin dena itxi.

Guztira, **1.200 milioi euroko eskaria** izan du jaulkipenak, eta **Espainiako zein nazioarteko inbertsoreen artean** oihartzun handia izan du, besteak beste Frantziako, Erresuma Batuko, Alemaniako, Holandako edo Koreakoaren artean.

Bere onarpen maila altuaren erakusle da eskariak eragiketaren zenbatekoa aise gainditu izana, bai eta bere kokapen-marjina duela gutxi egindako antzeko beste jaulkipen batzuen azpitik egoteak ere. Bonoen errentagarritasuna oinarrizko **110 mid-swap puntotan** ezarri da, jaulkipen hauetan erabiltzen den erreferentzia.

Moody's, Fitch eta DBRS-ek 'A3''A-''A(baxua)' balorazioa eman diote. Jaulkipena kokatzearen ardura Norbolsa, Barclays, Crédit Agricole, JP Morgan eta Santander erakundeek izan dute.

Bonua jaulkitzeak Kutxabankek **inbertsoreentzat duen eskaintza dibertsifikatzeko** aukera ematen du finantzazio-tresnekin, inbertitzaile kopuru handiagoarengana iristeko aukera zabalduz. Horrez gain, bere **likidezia-posizio eroso**a sendotzen du, Europako Banku Zentralaren (TLTRO) likidezia-baliabideen iraungipenari begira, eta **indarrean dauden jaulkipenen epemugak dibertsifikatzen ditu**, gainera.

Jaulkipen honek Kutxabankek betetzen dituen 2024rako **MREL eskakizunetan duen abantaila zabaldu egin du**. Eskakizunak bere kaudimen handiagatik –sistemako altuena–, eta 2019an eta 2021ean egindako jaulkipen konputagarriengatik betetzen ditu, Ez-lehentasunezko Senior bono hauetan 1.000 milioi euro ezarri baitzituen.